



Bidasoa activa
Bidasoa bizirik

Bidasoa bizirik enpresa ideia eta enpresa proiektuak martxan jartzeko 22 laguntza ekonomiko bideratzen ari da

- Programan sartzen diren ekintzaileek Bidasoa biziriken laguntza eta aholkularitza izango dute.
- Bidasoa bizirikek datorren urriaren 10ean informazio jardunaldia deitzen du ekintzailetza bultzatzeko laguntzen berri emateko

Irun eta Hondarribiko udalek, Bidasoa bizirik elkarteko Ekintzailetza eta Jarduera Berriaren sailaren bitartez, enpresa ideia eta enpresa proiektuak martxan jartzeko 22 laguntza ekonomiko bideratzen ari dira. Diru-laguntza hauek LANBIDE – Euskal Enplegu Zerbitzuaren ekintzaileei laguntzeko programaren barruan sartzen dira.

Zehazki, 1.000 euro bideratuko dira enpresa ideia bat eratuko duten pertsonentzat. Bestetik, 1.500 euro erabiliko dira enpresa proiektu bat martxan jartzen duten pertsonak laguntzeko. Zenbateko hauek %15 handituko dira baldin eta sustatzailea 18 urtetik gorakoa eta 30 urtetik beherakoa bada (eskaera aurkezten duen unean), eta beste %15 emakumezkoa bada.

Laguntzak eskatzeko ezinbestekoa izango da aldez aurretik Bidasoa bizirik-en tutoretza eta aholkularitza prozesua hasi izana. Hortaz, eskaera egin nahi duten horiek derrigorrez joan beharko dute aholkularitza prozesuaren hasiera eta laguntzen aurkezpena urriaren 10ean izango den bilerara.

“Diru-laguntza-deialdi honek enpresa-idea bat sortzea, aztertzea eta egituratzea sustatu nahi du, gero bideragarritasun-plan batean zehaztu ahal izateko eta negozio berri bat abian jartzeko”, adierazi du Miguel Angel Paez Bidasoa bizirikeko presidentea. Era berean, gaineratu du “Bidasoa bizirikek, laguntza eta aholkularitzaren bidez, edozein jarduera-adarreko negozio-idea zehatza duten ekintzaileei lagunduko diela, laguntza-jardueren eta aholkularitza-jardueren bidez, enpresa-jarduerari ekin ahal izan diezaioten”.

Bidasoa bizirikeko presidenteorde María Serranok azpimarratu du laguntza hori oso garrantzitsua dela ekin nahi duten pertsonentzat, profesionalen aholkularitza funtsezkoa baita proiektua aurrera ateratzeko eta bideragarria izateko. Laguntza ekonomikoaz gain, hori ere oso garrantzitsua baita.



Bidasoa activa
Bidasoa bizirik

Aurtengoa programaren zortzigarren edizioa da, eta urtero egin da 2014tik. Iaz, guztira 11 proiektu aurkeztu ziren, eta horietatik 10 ekintzaile sartu ziren programan.

Informazio-bilera

Diru-laguntzak jasotzeko interesa duten pertsona guztiek **urriaren 10ean, astelehena, eguerdiko 13:30etan Bidasoa bizirik-eko bulegoetan** (Hendaia kalea, 8. Ducoureau Jauregia. Irun) egingo den bileran parte hartu beharko dute. Baldintza, eskakizun edo prozeduraren inguruko xehetasun gehiago ezagutzeko, www.bidasoa-activa.com/eu/ eta www.ideiakbizirik.com webguneetan kontsultatu, 943 50 96 00 telefonora deitu edo ekintzailletza@bidasoa-activa.com helbidera posta elektronikoko bat bidali.

Informazio-saioa 2022ko urriaren 10ean, astelehena, 13: 30ean, gure bulegoetan (Hendaia kalea, 8, Ducoureau jauregia, Irun).